

# Arraina kareletik

Arrain askok ez dute balio saltzeko, eta arrantzaleek itsasora botatzen dituzte bueltan; Europako Batasuna (EB) arazo larri horri irtenbidea eman nahian ari da



**A**rrantzako sareek ez dute barkatzen. Parean jartzen zaien guztia irensten dute, beti asegaitez, baina sareek ez bezala, merkatuak ez du arrain guztientzako tokirik, jendeak ez dituelako erosten edo saltzeko ere txikiak direlako. Horixe gertatzen zaie, adibidez, hainbat eta hainbat dortoka, itsas hegazti eta izurderi. Uretatik atera eta uretara itzultzen dituzte, urpera hilik batzuk, eta hiltzeko besteak.

Zenbait iturriren arabera, urtean 20 milioi tona arrain galtzen da modu horretan, arrantzatzen den guztiaren laurdena. FAO erakundeak 2005. urtean egin zuen ikerketa batek dioenez, munduan arrantzatzen denaren % 8 kareletik joaten da, nahiz eta datuak aldatu egiten diren arrantzaleku eta arrantzaletan batetik bestera. Ikerketa horrek gehiago ere zehazten du: tokiko arrantzalekuan, amua erabiliz arrantzatzen duten guztiaren % 4 baztertzen dute, baina arraste arrantzan, aldiz, % 50 edo gehiago izaten da. Eta zenbaitetan, % 70 ere izan daiteke berriz uretara botatuko arraina; hau da, muturreko kasuetan, merkatura iristen den arrain arrain geratzen da bidean alferrik galduta.

## NATURAREN ETA EKONOMIAREN KALTETAN

Datu zehatzik ez dago, eta ezin da jakin "ofizialki" zenbat arrain galtzen duen ontzi bakoitzak, baina ez da huskeria bat. EBren esanetan, natura eta ekonomia "hondatzea" da arrainak hola alferrik galtzen uztea, eta, gainera, biodibertsitatea eta arrain multzoak desagerrarazten ditu, arrantza-presioa ugaritzen du eta ez dakar ez elikadura onurarik ez ekonomikorik.

Hagako Ikerketa Institutuak 2001. urtean egin zuen ikerketa bat saiatu zen kalkulatu zenbateko dirutza galtzen zen arraina hola baztertuta; Herbehereetako arrantzalekuan, adibidez, haga-arraste an galdu ziren arrainek 160 milioi euro iritsiko zituzten merkaturan 1998. urtean (urte hartan arrantzaleku horietatik lortu zutenaren % 70). Baina hori ez zen izan datu deigarriena: zigala arrantzan aritu ziren Frantziako ontziek galtzera utzi zuten arrain kopurua dirutan neurtu, eta

lortu zuten bezainbeste bota zutela ikusi zen (pisuan, ordea, erdira baino ez zen iristen).

Arduragabekeria hori bukatzeko, Europako Parlamentuak txosten bat onartu du aurren, zenbait mekanismo jarri nahi baititu abian nahigabeko harrapaketak gutxitzeko eta inork arrainik ez botatzeko. Txostenak esaten duenez, zenbait arrantza jarduerarekin hasi behar da formula horiek saiatzeko, haga-arraste an eta bakailaotan aritzen direnekin, adibidez, horiek baztertzen baitute arrainik gehien.

Arrantzaleei sariak ematearen alde agertu da Europako Batasuna, eta ez zigortzearen alde; beste neurrien artean, itxita egon diren arrantzalekuan eremu batzuk irekitzea proposatzen du, baina ez ontzi guztiei, sare selektiboagoak erabiltzen dituztenei edo arrain guztiari probetxua ateratzen dietenei baizik. Helburua ez da arrain gehiago harrapatzea, probetxu gehiago ateratzea baizik harrapatzen den horri eta ez uztea ezertxo ere gal dadin. Europako Parlamentuaren esanetan, "EBk ezin du onartu urtean milioi bat tona arrain baino gehiago galtzea dakarren po-

litikarik, jakinda, gainera, arrain ona dela". Orain artean baztertu izan diren arrain eta oskoldunak merkaturako bidean jartzea da helburua, bai arrain irinak edo olioak egiteko, eta bai jateko ere, ahal denean, behintzat. Espainian, zenbait sukaldari hango eta hemengo unibertsitateekin elkarlanean ari dira (Cadiz, Zaragoza, Caceres, Granada...), formulak aurkitu nahian arrain horiek sukaldaritzan erabili ahal izateko, itsas hestebete moduan edo salda kontzentratuak egiteko. Europako Batasunak, hala ere, tentu handiz jokatu behar dela ohartarazi du, orain ez baita komeni arrain horiekin merkatu alternatibo bat sortzea eta espezie horiek ere neurririk gabe arrantzatzen hastea.

## SISTEMA BERRAZTERTU BEHAR DA

Arrain mota horiek merkaturatzeko urratsa egin ahal izateko, sektoreko eragileak aspalditik ari dira esaten Harrapaketa Kopuru Baimendua (TAC) eta arrantza kuota banatzeko sistema berriz aztertu behar direla. Gehiegizko arrantza saihesteko sortu ziren kuota, baina, bitxia bada ere, kuoten eraginez geratzen dira bazterrean hainbeste eta hainbeste arrain. Balio gehien duten arrainak inte-

resatzen zaizkie arrantzaleei, kuota mugatua dutenez, ez baitaie komeni balio gutxiago arrainak harrapatzea, eta baztertu egiten dituzte. Horregatik, sistema nola moldatu aztertzen ari dira azken urteetan, eta aukera bat izan daiteke kuota kanpo uztea normalean itsasora botatzen dituzten arrain mota horiek; alegia, horien pisua ez aintzat hartzea portuan arraina pisa-tzen denean. Hola eginez gero, arrantzaleek ez lukete botako itsasora hainbesteko biomasa, eta ez lirakeke alferrik galduko elikadura eta ekonomia ikuspuntutik hainbesteko garrantzia duten jakiak.

Mediterraneoan arrantzan dabilzanentzat, ordea, bestelako neurri batzuk ezarri beharko lituzkete, han ez baita erabiltzen kuota sistemarik, salbu eta hegalabururantzat. Besteak beste, arrantzaletan laburtu beharko litzateke, arrantzaleku batzuk aldi baterako itxi edo sare selektiboagoak erabiltzera derrigortu beharko lituzkete arrantzaleak. Azken batean, arrantzaletan neurririk gabe luzatzeak ekartzen du gero espezie asko baztertu behar izatea. Askotariko neurriak proposatu izan dira gauzak hobetzeko, baina aditu asko eta askoren ustez, debeku aldiak ongi kudeatzea da gakoa, eta arrantzan egun erabilt-

zen den araudiari koherentzia eta zentzu gehiago ematea. Mediterraneoan, adibidez, ez dago debeku aldirik, eta bada zer baiten premia.

Eskoziako industria eta gobernuak aurten sistema berritzailea jarri dute abian: bakailoa arrantzatzeko leku batzuk itxi dituzte eta behatzaile independenteak joan dira arrantzaletan arrainkume larregi harrapatzen ez dutela ziurtatzeko. Kezkatzeko moduko zerbait ikusten badute, arrantzalekuak aldi batera itxeko proposamena egiten dezakete.

Arrantzako araudiaren koherentziari dagokionez, zenbait adituk lehen ere salatu izan dute legea "zentsugabea" dela zenbaitetan, eta horren adibidetzat jartzen dituzte sareen gaineko arauak: legeak onartzen dituen zenbait sare maila txiki eta estuak dituzte, eta, ondorioz, legeak onartzen dituen baino arrain txikiagoak harrapatzen dituzte. Sare selektiboagoak ezartzeko lanean ari dira eragileak, maila karratuko sareak, adibidez, eta horiei ihes egiten dieten espezieek bizirik irauteko zer aukera duten aztertzen ari dira (ihesi joandako arrainek ez badute aukerarik bizirik irauteko, sare selektibo horiek ere ez dira izango batera eraginkorrak). ◀